

## WISKYAREKIN DANTZAN

Ihintza Erremundeguy Beloki, 17 urte

*Baiona*

Taberna hutsik zegoen. Kanpoan, ezer ez; haize hego epela dantzan, ilargi betea triste. Urrutian, marinela bakarti baten kanta xumea aditzen zen; amaierarik gabeko kanta isila. Kai aldean, antxeta batzuk begizta zitezkeen, inguru hartako bizi seinale bakarrak zirela oharturik elkarri mokoka. Tarteka, uhin bat arroken kontra lehertzera ausartzen zen baina gehienek itsasoaren dantza monotonoa jarraitzen zuten; bare-bare. Asago, txalupa bat zegoen. Txalupa txiki bat. Herabe, marinela kanta xumea eta itsasoaren dantza monotonoaren artean galdurik.

Orratzik gabeko erlojuak lagundu ez arren, Martinek bazekien berandu zela zeruko izar bakaren argi ahulak salaturik. Zeruari begira zegoen, ametsetan. Itsas haizearen kresal usaina zetorkion

gogora. Azkenaldian, gauero begizta zezakeen ikuskizun berdina.

Gizon altua zen Martin, nahiko dotorea. Atorra zuri batez beztitu ohi zen gehienetan. Bakarrik bizi zen. Aita ez zuen inoiz ezagutu baina amaren ahotik ikasia zuen arrantzalea zela, aldizka ukaten zituzten elkarrizketa sakon horietako batean. Izan ere, ama nahiko emazte isila zen, umila. Bizitza lanean pasa zuen semea hazi ahal izateko. Gaur egun, ez zuten gehiago elkarren berririk, eztabaida bortitz batez hautsi zituen beraien arteko harremanak. Martin ahoandi samarra zen, nahiz eta itxura baldar haren atzean bihotz sentikor bat ezkutatu. Apur bat harroa ere bazen ezagunekiko harremanetan eta batzuk irri faltsu batez agurtzen jarraitu arren, gehienek ez zioten kasurik egiten. Ez zuen lagunik. Ama hil zitzaionetik haren etxean bizi zen, bakarrik. Etxe txikia zen baina handiegia Martinentzat, hutsuneari toki sobera eskaintzen baitzion. Orduan, bakardadeari ihesi, tabernan iragan ohi zuen denbora libre gehiena egunkaria gainetik irakurri eta kinielan jokatzeko. Bestalde, hori guztia nahikoa ez balitz bezala, pariatzaile amorratua bilakatua zen azken urteetan, egunak eta gauak, noizbait aberasteko itxaropenez, amaren azken sosak gastatzen pasatzen zituelarik. Izan ere, Martin langabezian zegoen, hau da, hobeto esanda, ez zuen inoiz lanbiderik lortu. Alferkeria zuen legetzat, bere burua ezerezean galtzen uzten zuelarik. Gertakiririk gabeko bizitza aspergarria zen berea. Baso hotz hura zen bere ondoan egotea onartzen zuen baka-

rra. Hain zuzen ere, hura zen haren bizipoz bakarra ez baitzuen ez haurrik, ez eta ere familiarik.

Bihotzeko dardara gaziaz ere gutxitan gozatu zuen; ez zen abentura ugari edukitakoa. Mutil zahar izatera kondenatuta zegoela zioten denek. Oso hitun ona ez zenez, zail egiten zitzaion barneko sentimenduen adieraztea, eta, era berean, nahiko traketsa zenez, ez zituen besteek adieraziak ulertzen. Duela pare bat urte dibortzioa ere ezagutu zuen inoiz maitatutako emazte bakarrarekin. Aitziber zuen izena. Neska jatorra zen, jatorregia beharbada bereztako, zeren, hasi eta lau hilabete barru, justu elkar ezagutzen hasitakoan, bukatu zen beraien artekoa. Horrela, laster berrogei urte betetzear zegoen eta ez zuen kandelak itzaltzen lagunduko zion nehor. Orduan, tabernan iragaiten zuen eguna, trago bakoitzak itxaropen poxi bat pitzaraziz, emazte bat besoetara eroriko zitzaion eguna iritsiko zela eta ez zuela hetsi behar sinestarazten zion bitartean, penak eta egiaztatu gabeko fantasmak whiskeytan itoz.

Duela aste bete, bi egun lehenago lortu lana ere galdu zuen. Kanporatu egin zuten. Ez zekien zergatik. Ez erran ez ziotelako, baizik eta nagusiak, oihuka, kanpora bidali zuen goiz hartan, oraindik bezperako mozkorra pasa gabe baitzuen. Langa-bezian izanki, denbora gehiago pasa zezakeen ostatuan, lehenago bezala. Eguna ametsetan galdurik eta edaten iragaiten zuen, tarteka, ostalariari hitz erdi bat zuzenduz. Batzuetan ere, barre algaraka hasten zen berak ere zergatik jakin gabe. Bakar-dadeak egunero bizi zati bat jaten zion.

Aurreko gauean, egunkariko iragarkietan “txin txan pun” baten bidez aukeratutako neska batez maitemindu zen. Bere izena besterik ez zuen eza-gutzen; eta hura ere, justu-justu, hamarretarik behin bakarrik ahoskatzen baitzuen behar bezala. Izen ingeles konplikatu horietariko bat zen, Hollywood-eko artista famatu baten amarena edo.

Arrats hartan bera zen bezero bakarra. Taberna hutsunearen epeltasun astunak betetzen zuen. Barneko argi xumeak gaua konbidatzen zuen ostatu atarira. Bakardadearen erosotasun faltsuan murgildurik, marinelaren kantu geldoa zekarren ahora ezpainak whiskyaz bustitzean. Hirugarrena dagoneko. Kanpoan, izar bakanak zelatan zerraien, zeru beltzeko diamante. Uhinak, arrainak kulunkatuz, ilargia kontsolatzen zuten, hark isuri malkoak itsaso barrenean kukutuz. Denbora zalu zihoan aurrera, erlojua mantsotzen saiatu arren. Basoak hustu ahala, zeruko izarrek bertara zetozen gaua ilunduz. Martinek behatz puntez, basoa ferekatzen zuen. Poliki-poliki. Goxo-goxo. Bihotzeko oihartzun mutuek eztarria berotzen zioten whisky zurrupekin elkartzerakoan.

– Beste bat.

Gaua bizi-bizirik zegoen. Izar guzti haien argi izpien ondoan, eguzkia ere itzal zitekeen. Aulkiari erantsirik gorputza dantzan zerabilen Martinek. Basoaren dardara hotzak odola berotzen zion. Pentsaketan zegoela itzal bat ikusi zuen. Geldi zegoen ate aurrean. Zeren zain ote zegoen? Aurpegia ez zitzaion ageri baina Martini ezaguna egiten zi-

tzaion. Oldozkor, zein izan zitekeen asmatu nahian zebilen.

Edurne. Bere lehen abentura. Haren ezpaineta-koaren zapore samina zetorkion ahora. Ez zuen inoiz ahortzi neska hura, nahiz eta oroitzeko moduko ezer ez gertatu. Muxutxo bat; eta hura ere lapurtutakoa. Bi egun iraun zuen beraien artekoak, serora sartuko zela jakinarazi zion arte, hain zuzen. Silueta hurbiltzen ari zen.

Alaitz. Nagusiaren alaba. Haren hanka finak! Marinelaren txalupako masta bezain luze eta hunkiezinak. Kafe makinaren ondoan egoten zen zain, aurretik iragaiten zen edozein mutili keinu eginez. Besteek jokoa ikasirik, ez zioten kasurik egiten, baina Martin, haragi freskoaren gosez, egun batez hurbildu zitzaion. Eskutik heldu eta komunera zihoazen bitartean, gizona jada ametsetan hasia zen. Baina bertara iritsita sorpresa txar bat aurkitu zuen. Nagusia! Bi ukabilkada jaso eta burua komune-ko zuloan zuela esnatu zen zorabioa pasatakoan. Geroztik, alaba ikusi orduko aitaren bila hasi ohi zen inguruan, bada ez bada ere.

Maria ote? Lankide baten ama. Haren ferekek basoko izotzen pare berotzen zuten, azala hotzikarretan kiskaliz. Kanpotarra zen. Whiskyak ere ez zuen hark adina zorabiatzen. Txora-txora eginda zeukan Martin. Urdaila korapilatzen zitzaion gonapera eskua lerrarazten zion bakoitzean. Egia erran, behin bakarrik lortu zuen halakorik; herriko festetan. Plazako aulki batean zegoen eserita eta Martin hurbildu zitzaionean triste zegoela erran zion, biko-

tekideak utzi baitzuen. Hori jakitean, Martinek kontsolatzeko asmoz hitz goxo batzuk erran zizkion eta neskak eskua gonapera lerrarazi zion, beste kontsolazio mota baten eske. Baina, bat-batean, alimaleko saltoa egin zuen Martinek. Zer zen hura? Emakumearen anatomia gutxi ezagutu arren gizonarena aise ongi azterturik zeukan bakardadearen kontsolamenduan eta behatz puntekin behar lukeen baino ezagunagoa zitzaion zer-bait hunkitu zuen gau hartan. Ez zuen bi aldiz pentsatu beharrik izan, Maria gizona zen! Konturatzerako, plazaren bestalderaino korrika eskapatua zen sekula ez zela berriz neska batengana hurbilduko hitzemanetz.

Ordurako ez zegoen zeruan elaire bakar bat ere. Kapa beltza osotasun guzian zabaldu zen. Itzalak bertan zirauen. Loreley zen. Dama ederra. Gauero gurutzatzen zuten elkar. Batzutan begirada motz bat zuzentzen zion Martini, eta bere begien beroa gizonaren eguzki bilakatzen zen. Ile beltz haien kizkurretan zorabiatzen zen gizona gorputz lirain hark sutan jarri arte. Soineko beltz batez beztitzen zen gehienetan, bizkar beltzaran hura agertuz gerri estu bat amesten uzten zuena izter fin haien formetan galdu arte. Neska altua zen Loreley; telebistan agertzen ziren horietakoa. Ate izkinako aulkian eseri ohi zen beti, kanpoko aire freskoaren babesean. Martinek errainuari begira jarraitzen zuen xoraturik.

– Beste bat.

Kai bazterreko itsasontziek jada lo hartu arren, marinela ez zen isiltzen. Arkaitzek ere, harriaren

hotzean, sukar berezi batez itsasoa goxatua zuen ordurako, bare-bare zegoela, ispilu beltzean ilargia apaintzen utziz. Martinek Loreley-en begi beltzei so egin zien. Zer nahi ote zuen? Amets batean balego bezala, Martin errealitatetik oso urrundua zen. Basoa berekin zuela, zutitu eta dama ederrarengana abiatu zen. Geldi zegoen. Bere parera iristean, bien begiradak gurutzatu ziren harmonia sensual batean. Eskutik heldu eta, poliki-poliki, beregana hurbilduz, marinelaren kanta xumea lagun dantzan hasi zen Martin. Goxo-goxo. Loreley-en esku hotzek irentsitako izotzek baino gehiago berotzen zuten.

Melodia isilean murgildurik, beste eskua gerrian jarri zion gizonak neska gaztearen gorputza bereari itsatsiz. Usain berezia zuen Loreley-ek, kresal usaina oroitarazten zion Martini. Ordurako dama ederraren ile beltzek ostatuko kanto guztiak ferekatuak zituzten. Emeki, Martinen sorbaldan pausatu zuen burua. Bihotza dantzan zuen gizonak dama ederraren ezpainak lepo aldean hitz goxoen xuxurlatzen sentitzerakoan. Ilargiaren argi pean ez zen beste nehor ageri, filmetako eszena kultoen gisan. Urratsez urrats. Dardara bero batzuek gorputza zeharkatzen zioten Martini, kristal hotzaren izerdia dastatzerakoan. Ez zegoen gehiago whiskyrik.

Marinela ahotsik gabe gelditzen ari zen. Irrintzi isil haiek eztarria urratu zioten. Orratzik gabeko erlojuan, denbora aurrera zihoan eta lehen eguzki izpiak itsaso barean bainatzen hasiak ziren. Sabela

huts-hutsik zuen gizonak eta hankak txingurrituta;  
gau osoan aulki hartatik ez mugitu izanagatik segu-  
ruenik ere. Ilargiak bizkar ematen zion. Itzalak ber-  
tan zirauen. Isiltasuna lagun, Martinek lo hartu  
zuen; whiskyarekin dantzan.